

» hizpideak

Putin eta «nazioarteko terrorismoa»

Ipar Osetiako Beslan hiriko ikasterxe baten bahiketa eta ondorengo asaltoaren ondorioz izandako sarraski bortitza, «nazioarteko terrorismoa» eraso zuzenean izan zela adierazi zuen atzo Errusiako presidentea Vladimir Putinek, telebistaz eta irratiz federazio osora igorritako mezuan. Biktimarik gehienak errusiar tropa berezien oldarraldiak eragin bazituen ere, Putinek ez zuen inolako azalpenik eman bahiketa amaitezko oldarraldiari buruz. Aitzitik, George Bushek 2001eko irailaren 11z gerotik darabilen diskurso bera errepikatu zuen.

Txetxeniako gerra ere ez zuen hizpide izan, Beslango bahiketak harreman zuzena

izan arren Kaukasoko gatazka horrek. Horrek ez du esan nahi, ordea, txetxeniarrak ez dutela jasango Ipar Osetiako bahiketa eta ondorengo sarraskiaren ondorioz.

Estrategia bezala ez da txarra, sinesgarritasun guxu duen arren. Batetik «nazioarteko terrorismoa» aipatuta, Putinek ere Bush bere egindako «defenditzeko eskubidea» aldarrikatzen du. Bestetik, Txetxenia aipatu gabe utzita, Osetiako sarraskia eta Txetxeniako gatazka bereizten ditu, baita bestearekin ikustekorik ez balu bezala; hartara, Txetxenia, orain arte bezala, «barne arazotzat» hartzen segitzeko.

Sinesgarritasun gutxi izan arren, lehen egunotan behintzat eraginorra da estrategia. Nazioarteko erreakzioak ikusi besterik ez dago.




TXILLARDEGI bere omenaldia iragartzen duen afiltxaren ondoan, herenegun, Donostian. (EN) (ABC) ARGAZKI PRES

Txillardeggi, liburua eta omenaldia

Sortu zela 75 urte betetzear direnean, liburua besapean eta bere omenez antolatu dituzten jardunaldiek, inoiz baino biziago ageri zaigu Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardeggi, BERRIARI eskaini dion elkarrizketan. Pentsamendu erradikaleko intelektuala, gaztetan zituenean ideiak alboratu gabe, duela 50 urte eta gaur egun ia berdin pentsatzen duela aitortu du. *Euskararen aldeko borroka* da argitaratu emandako azken liburua, euskararen inguruan idatzi dituen artikuluen bilduma. Euskara izan baitu ardatz Txillardegik ekintza mailan; beti bezain kritiko, beti bezain erradikal.

» montxo



» zorroztarri

Sekulakoa

KARMELO LANDA

Patrizioen konspirazioa Bilbon, hiria zimentarri den Athletic taldearen hauteskunde kanpainarekin batera. Bitarteko guztiak jarri dituzte jokoan, eta beraien egunkariak editorial mamitsua idatzi du konspirazioaren nondik norakoa markatuz: «Athletic berria».

Haria bota dute lehenengo, udakomenia amaitu eta segidan, irailaren lehen egunetik, Lamikiz hautagai plebeioa begi-begian jo nahian, klubaren

presidentea Arrate zen garaian hartutako akordioak aurpegiaratu; otsoa aipatu dute orain, baina harrkada hau egokitzen aspaldian ari ziren hiriko patrizioak; konspirazioa lehenagotik zetorren, zeren uda-hasieran jada pentsatua zuten Athleticen presidentziarako beraien hautagaia, familia oneko Domingo Guzman; hala ere, haren anaia Juan Pedro hobetsi dute gerora, Domingo lehenago Arrateren adiskideegi agertzen zelako, eta beraiek Arrate eta honen bitartez Lamikiz hautagai berria ere bota nahi dituzte Athleticen zuzendari-tzatik.

Baina zer lortu nahi dute patrizioek?: beraien egunkarian aipatu editorial-manifestuak argi eta garbi seinatlatzen duena, Athleticen izaera berezia, hau

da, erreferentzialtasun sinboliko nabarmena amaitutzat eman eta Estatu espainiarrean diren gainontzeko futbol-taldearen traza eta kolore bertsua eman bilbotarrari; izan ere, hortik hasten baita patrizio bilbotarren editoriala, gogora ekarriz Bilbokoa dela «Espainia osoko futbol-klubetatik» sozietate anonimo bilakatu ez den talde bakanetarikoa.

Halakoa da Bilbo; ez da sekula aspergarri gertatzen, ez eta udan ere; udaren berotasunean prestatzen dira gero, abuztua amaitu eta batera, leherrarazten diren trama bihurriak; beroaldi horietako batek oldartu bide zuen Jose Alberto Pradera bera ere bide bertsuetara, eta hala aurkeztu du bere burua hauteskundeetara, lehenago Bizkaiko Diputazioan eta orainsuago autobide pribatua

tuetako enpresari buruzagitzan lortutako curriculum baliagarri izango dituelakoan; Bilboren erdi-erdian dagoen Urkio bankuaren egoitzan jarri du berea, eta han dago zain, patrizioen konfiantza eta ondorioz bazkideen botoak eskuratzaileen dituelakoan. Alferrik Pradera berandu ohartu bada ere, hauen konspirazio ongi diseinatua beste bide batzuetatik abiatu da.

Larri jo dute konspiratzaileek Lamikiz hautagaia eta arriskutan jartzen dute honek ia segurutzat ematen zuen garaipena; ez da erraza, bestalde, Lamikizek berak elkartasun zabalgorik lortzea Athleticzaleen aldetik; gaur egungo demokrazia atletikoak buztinezko oinarriak baititu, eta zenbaki askodun txekek.